

EMAITZAK. Lehen seihilekoan %8,9 gutxitu dira BBVAren irabaziak

Irabaziak aurtengo ekitaldian %9 murriztuko zaizkiola aurreikusi du BBVAk

Argentinako krisiari eta Telefonicareen galerei egotzi diete errua

Erredakzioa | BILBO

BBVA Banco Bilbao Vizcaya Argentariak urte hasieran aurreikusi baino emaitza kaskarragoak izango dituela onartu zuen atzo. 2.600 milioi euro ingururen irabaziak izatea espero zuten aurtun, baina mozkinak 2.150 milioi euroraino murriztuko direla esan dute finantza erakundeko arduradunek. Hori betez gero, iaz baino %9 gutxiago irabaziko du BBVAk aurtun.

Antzeko murrizketa izan dute urteko lehen seihilekoan ere BBVAren irabaziek. %8,9 gutxitu dira mozkinak urtarritetik ekainera bitartean, 1.166 milioi euroraino. Bitartekari marjina %0,2 murriztu zen, eta ohiko marjina, berriz, %2,1. Ustiapen marjina handitu egin da, halere: %12,8.

Irabazien murrizketa «ezus-teko gertaeren ondorioz» izan da, BBVAk azaldu duenez. Batik bat, Argentinako krisiak izan bide du eraginik handiena. Latinoamerikako diru batzuek izandako debaluazioak ere izan du zerikusirik, eta Telefonicareen galerek ere bai. Izan ere, telefono konpainia hori BBVAko akziodun nagusietakoa da.

Urtarritetik irailera bitartean, 209 milioi euro erabili behar izan zituen BBVAk Telefonicareen galerak kitatzeko. Argentinako krisia dela eta, berriz, 117 milioi euro galdu ditu finantza erakundeak lehen seihilekoan.



LUIS TEJIDO / EFE

Aurreikuspenak gorabehera, «baikor» daude finantza erakundean.

Horrez gain, Repsol konpainian zuen partaidetzak orain arte emandako irabaziak ere bertan behera gelditu dira aurtun, eta Italiako BNL bankuak emandakoak ere bai. Orotara, 107 milioi euro gutxiago irabazi ditu horregatik.

Hala eta guztiz ere, baikor agertu da BBVAko zuzendaritza, «negozioaren mugimendu nagusiek erritmo egokian jarraitzen baitute». Esaterako, Latinoamerikako bankuen us-

tiapen marjina %46,1 handitu da. Xehkakoen bankuak eman dio irabazi gehien BBVAri. 522 milioi euro irabazi ditu xehakako bankuari esker, iaz baino %18,4 gehiago.

Hala ere, zuhur agertu ziren BBVAko arduradunak. «Merkatuaren bilakaerek zeresan handia izango dute hemendik aurrera, eta badaezpada diru jakin bat gordeta dugu horretarako», azaldu zuten emaitzak jakinarazi ostean.

Hala, Gobernuak Nazioarteko Diru Funtsetik 700 milioi dolarreko aurrerapena lortzeko akordioa bidean zegoen.

Uruguai, gainera, Ameriketako Estatu Batuetatik laguntza zuzena erdietsi du, lehen aldiz. George Bushen administrazioak 800 milioi dolarreko kreditua onartuko du.

Finantza krisialdia hasi zenez, Gobernuak ukatu egin du Argentinan den egoera errepikatzeak arriskua. Alejandro atchugarry Ekonomia eta Finantza ministroak erabat baztertu zuen *korralitoa* abian jartzeko aukera.

KRISIALDIA. NDFtik 700 milioi dolar eta AEBetatik 800 lortu ditu Gobernuak

Bihar ere itxita egongo dira Uruguaiako bankuak, nahiz eta finantza laguntza lortu

Agentziak | MONTEVIDEO

Bihar arte iraungo du, gutxienez, Uruguaiako Gobernuak ezarri duen bankuen itxierak, Alejandro Atchugarry Ekonomia eta Finantza ministroak azalutakoaren arabera. Herrialdeak duen finantza krisiaren ondorioz hartu zuen neurria Jorge Batlle Uruguaiako presidentek.

Astelehenetik aurrera bankuek atak zabaltzea espero da, jakinarazpen ofizialik egon ez arren. Edonola ere, kutxa automatikoetan dirua ematen hastea espero da. Mugak izango dituzte, ordea, dirua ateratzeko orduan.

Nazioarteko erakundeek, bitartean, mugimenduak egin dituzte, Uruguai egindako laguntza eskaerei erantzuteko.

LABURREAN

Ekainaren 19tik preso egon ostean, gaur aterako dute espetxetik Jose Bove

Jose Bove globalizazioaren aurkako ekintzailea gaur utziko dute aske, ekainaren 19tik preso egon ostean. 1999an Mc Donald's bati erasotzeagatik kartzelatu zuten Bove. Iragan ekainean epaitu zuten, eta hiru hilabetez kartzela zigorra ezarri zioten. Iragarrita dagoenez, gaur goizeko 09:30ean aterako da Villeneuve-les-Maguelone kartzelatik.

Nafarroako Lan sailburu Iturriagagoitiak kargua uzteko eskatu du ELA sindikatuak

Nuria Iturriagagoitia Nafarroako Lan sailburuak kargua uzteko eskatu du ELA sindikatuak, lan istripuen inguruan egin berri dituen adierazpen batzuk direla eta. Nafarroako lan istripuen erantzulea aurrekontuen luzapenaren ondorio besterik ez dela esan zuen Iturriagagoitiak. «Horrek arazo larri bat konpontzeko inolako gaitasunik ez duela erakusten du», ELAren arabera, eta, horregatik, «lehenbailehen kargua uzteko» eskatu dio Iturriagagoitiari.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako enpresek 115 lantegi dituzte atzerrian

EAEko enpresek 739 zentro dituzte atzerrian, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak emandako datuen arabera. Horietatik 115 lantegiak dira, hots, produkzio zentroak, eta gainerakoak komertzialen zentroak dira. Atzerrian dauden zentro horien %60 Europako Batasunean daude, %27 Ameriketara, eta %5,7 Asian. Zentro gehienek filial legez funtzionatzen dute.

EHNE sindikatuak ez du zuzenean parte hartuko INLACen, «ez duelako ezertarako balio»

INLAC esnearen lanbide arteko erakundean testigantza soilik emango du hemendik aurrera EHNE sindikatuak. «Erakunde hori ezertarako balio ez duen talde bat da. Ez du ezer egin esne ekoizleen alde, baina bai industriaren interesaren alde», diote EHNEko eta COAGEko ordezkariak. Horregatik alde egingo dute erakundetik.

MERKATARITZA

Berckmans Baionako MIGeko burua hautatu dute Akitaniako ganberako lehendakari

Erredakzioa | BAIONA

Jean-Marie Berckmans Baionako Merkataritza eta Industria Ganberako (MIG) lehendakaria hautatu zuten, atzo, Akitaniako Merkataritza eta Industria Ganberako lehendakari. Egitura horretan eskualdeko MIG guztietako lehendakariak biltzen dira, eta aho batez hautatu zuten Baionakoa, atzo egindako bozketan.

Berckmans esan zuenez, «merkataritza eta industria gaberaren sareak eskualdeko instituzioekin harremanetan egon behar du, decentralizazioari buruzko eztabaida nazionalak eskualdea jardun ekonomikoaren erdian ezartzen duen garaian».

Akitaniako ganberak «tokiko ganberen ekintza aberastasuna eta dinamismoa agerian ezarri» behar dituela adierazi zuen lehendakari berriak, hautatua izan eta berehala eman zuen hitzaldian.

Horrez gain, MIGek «enpresei hurbiltasun zerbitzua» segurtatzen dietela zehaztu zuen Jean-Marie Berckmansek. Akitaniako ganberak «enpresen boza entzunarazi behar du Akitaniako erronka handien inguruan; AHTren inguruan, adibidez», gaineratu zuen ganberako lehendakariak, ganberakideen aurrean emandako hitzaldia amaitzeko.

CB CANAL BIZKAIA	
Bizkaiko Telebista	
UZTAILAK 01 OSTEGUNA	
09:00	KONTZERTUA: "Matchbox 20" (Primera parte)
09:30	LAS AVENTURAS DE SHIRLEY HOLMES:
10:00	LA COCINA DE LOCALIA
10:30	COCINA: "DESCUBRA LA PASTA"
11:00	DOCUMENTAL: "VETE ENTERANDOTE"
11:30	KONTZERTUA: "ELLOS"
12:00	TELENOVELA: CARITA PINTADA (episodio 93)
13:00	HECHO POR ELLA
13:30	CALIDAD DE VIDA
14:00	BIZKAIA GAUR 1ª EDICIÓN
14:45	GAME OVER
15:00	NOTICIAS LOCALIA
15:30	SERIE: "EL SEÑORIO DE LARREA"
16:30	SERIE (Cap 32 y 33) "ENTRE DOS FUEGOS"
17:30	TELENOVELA: CARITA DE ÁNGEL (Capítulo 110)
18:15	HOLLYWOOD EN PERSONA: "Pamela Anderson"
18:45	TXIKIAREA
19:00	ARRAUN 2002
19:30	MTV. CANAL MUSICAL
20:00	LAS CHICAS DE ORO: "Mister Tremendo"
20:30	BIZKAIA GAUR 2ª EDICIÓN
21:05	NOTICIAS LOCALIA
21:30	PLANETA VERANO
21:45	MAGAZINE: "TAQUICARDIA DE VERANO"
22:15	CINE: "Expediente secreto"
00:00	CINE: "Crimen premeditado"
01:30	SURFTIME!
01:55	WORLD SPORTS
02:20	PLANETA VERANO (R)
02:30	MTV. CANAL MUSICAL
05:00	AGENDA CANAL BIZKAIA